



Gorputzen (des)kontrola



IRATI LABAIEN EGIGUREN
EHU-KO IRAKASLEA

Valladolid probintziako lur zabal bezain idorrean gindoazela heldu ginen harresiz inguratutako Urueñara. Herri txiki bezain bitxia da: 200 biztanle ez baditu ere, zortzi liburu-denda daude, literatur museo bat, baita literatura unibertsaleko ipuin eza-gunen txokoa ere. Letrez sorgindutako herrixka hau liburu-hiri izendatu zuten 2007an, eta geroztik, bisitari ugari izan ohi du urte osoan. Bertako Primera página liburu-dendan eskuratu nuen Emilia Pardok –duela ehun urte zendu zen idazle eta kazetariak– emakumeen kontrako indarkeriaren inguruan idatzitako ipuinen bilduma. Mende bat baino zaharragoak diren istorioek kutsu berezia dute, antzinako idazkeragatik eta kontakizunen krudeltasunagatik. Azken asteotan Afganistandik etorritako notiziek emakumeen egoerak 200 urte atzera egingo dutela iragarri dute. Hala-beharrez, Pardoren idatziekin nolabait teko lotura egin dut, egiazkotasunaren eta fikzioaren mugan dantzan dabiltzala baitirudite.

Lurralde horretan egindako esku-hartzearen arrazoi geoestrategiko eta interes ekonomikoak ukaezinak dira; gerra errentagarria da, besteen lurretan egiten denean bederen. Dena dela, interes jakin hauekin batera, bada emakumearen gain modu berezian behin eta berriz agerian geratzen den bortizkeria, hots, etxetik kanpoko jarduera ororen ezeztapena: etxetik kanpora lan egin

Puta edota
birjintasun hitzen
etimologiaren bidez,
besteak beste, egun
ditugun usteak
hankaz gora jartzeko
gai ere bada Darder

ezina, ikasketen ukapena, gizonezkoak lagunduta atera beharra, edota gorputzeko azal osoa estaltzea. Izate hutsaren kontrola.

Begirada zabalduz gero, askotarikoak dira munduan emakumeen gain egindako jazarpenen adibideak. Nazio Batuen Erakundeko 2020ko estatistiken arabera, 200 milioi neskatila mutilazio genitalaren biktima izan dira (eta beste 68 milioi mutilazio hori pairatzeko arriskuan izango dira 2030. urtea baino lehen), 60 milioi haur inguru ezkontzera behartuko dituzte, eta urtero 14 milioi nerabe baino gehiagok erditzen dute behartutako sexu harremanen ondorio gisa. Errealitatearen zertzeladak besterik ez dira datuok, baina egoeraren larritasuna islatzen dute, dudarik gabe.

Basakeria hauetako asko emakumearen sexualitatearekin lotu izan da hainbatetan. Izan ere, tradizioak okerreko

sinesmen asko errotu ditu emakumearen desira alboratzeko. Adierazgarriak dira esaterako klitoriaren erresektzioa emakumearen fideltasunarekin eta bere purutasunarekin lotzen dituzten usteak, eta ezin ahaztu Evaren desiren erruz bota gintuztela paradisutik. Mireia Darderrek, psikologian doktorea eta emakumeen sexualitatean aditua denak, modu pedagogiko eta arinean azaldu ditu *Nacidas para el placer* liburuan emakumearen gorputza kontrolatu nahiak ekarri dituen ondorioak. Autorearen ustez, mendeetan esetsi eta zigortu dira desira eta plazera, delituak, zikinak, edota ez-puruak bailiran. Puta edota birjintasun hitzen etimologiaren bidez, besteak beste, egun ditugun usteak hankaz gora jartzeko gai ere bada Darder. Norberaren plazeraren potentzialtasuna aldarrikatu nahi du idazleak, sexualitatea besteen (gehienetan gizonezkoen) kontrol eta menpekotasunetik askatu eta desirari uztartzeko bidea proposatuz.

Utopikoak izan daitezke hainbat emakumerentzat Darderren proposamenak, eta urruneko eta arrotzak izan daitezke Pardo moduko idazleen kontakizunak beste batzuentzat. Baina liburuek Urueña mundura jalgi duten moduan, gu ere ezezagunak zaizkigun egoeretara garamatzate, hainbatetan ezinezko diruditen lekuetara. Norberaren burua eta gorputza askatasunaren gotorleku izan badaitezke, irakur dezagun, esna bada ere, utopiez amesteko. ●